

Egilea:

LUKAX DORRONSORO

Deba XIX. mende hasieran

*S*tsas garraioaren hazkundeak Deba ibaiaren aho haitz-hortzez saretuak irents ez zitzakeen burdinazko barku handiak eraikitzea ekarri zuen ondorio. Deba itsasoari nostalgiaz begira geratu zen une hartan, itsas txalupa txikien arrantza xumea eta erriberako nahiz Itziar aldeko baserri bakanen nekazal emari urriak beste bizibiderik gabe.

Ez luzarorako ordea. Ordurako ikasten hasiak baitziren eremu lehorretako dirudunak Andutz eta Arno mendien arteko hondar-txoko beltzaranera bi-dea. Garai hartako kronikek diotenez,



Tene Mujika Egaña (1888-1981)

1848ko udan 250-300 bainista hartu zituen Debak aterpean. Izan ere, Miarritze eta Donostiarekin batera, Deba baitzen honelako zerbitzua eskain zezaketen euskal itsasertzeko hiru herrietan bat. Horregatik, 1854-56 bitartean Zumaiatik Sasiolara egin zuten bide berria Debako itsasertzean barrena ebaki zuten. 1864-67ra, berriz, Debari Bizkaia Ekialdeko herriekiko harremana erraztuko zion Deba-Mutriku zubia eraiki zuten. Handik laster agertu zen ibai ertzean zehar,

hemen zulo eta han ibar, sator luze zarata-
tsua, muturretik ke artean txinparta zeriola.
Eusko trena zen, adarra ozen joaz, debar
txundituen txalo harrituak jasotzera, harro
zetorrena. 1893ko abuztuaren 3an egin zuen
lehenbizikoz Elgoibartik Debarainoko bidea.
Ez alferrik! Geroztik Bilbo aldeko dirudunei
Debako paradisu mendi artean gordea beha-
rrezko pausaleku bilakatu zaie uda oro. Badi-
ra erabat debartu direnak ere, eta ez hain
gutxi.


Paradisuek, ordea, galdu egiten dute euren
izaera, bertako biztanleek, arretaz zaindu or-
dez, arrotz dotoreen tankeran agertzeari
ekiten diotenean. Inperioaren hizkera (gazte-
lania) hobetsi eta erabiltzen hasi ziren para-
disutarrak, jatorrizkoa (euskara) arlotetzat
zokoraturaz.




Hemen bataiatu zuten Tene

Eta Tene jaio zen

Aberats etorri zitzaigun 1888. urtea, emariz
opari hornitua. Orduantxe jaio baitziren,
besteak beste: Nikolas Ormaetxea Orixe,
euskal izaera zaharraren antzirudia, *Euskaldu-
nak* poema eraiki zigun olerkari erromantiko
handia; Moulier Jules Oxobi, nafar mendieta-
ko erreka kantarien ahots gardena; Julene
Azpeitia Arritokieta, bertso zaleen euskal giro



Teneren bataio agiria



Hondartza eta tren. 1893an heldu zen tren Elgoibartik


aberatsean jaiorik, euskal andereñoen eredu bilakatzera heldu zena; eta, Robustene Mujika Tene euskal emakumea atzartzeko une egokian izeki zen txingar abertzalea.

Tene 1888ko maiatzaren 24an jaio zen, Deban, kale nagusian, Plaza Berritik hogeitau metro hegoaldera, herriko jaietan zezenek entzierroan egiten duten azken kalemuturraren kantoietxean. Familia onekoa zen; ondasun eskuarte lasaia zueneko, alegia. Joan Joxe Mujika eta Josefa Juliana Pepa zituen gu-

raso; herriko janari denda handienaren jabeak. Euskaldun jator, herriaren etorkizunaz biziki kezkatuak; eta, noski, ondorioek erakusten digutenez, kristau elizkoi zintzo eta abertzale sutsuak. Zer pentsaturik eman zion izaera honek Joan Joxeri, jaio berriari izena jartzerakoan. Bederatzi seme izan eta gero emaztea hamargarren haurra izateko handi ikusi zuenean, Itziarko Ama Birjinari promes egin zion: alaba jaiotzen bazitzaion, Itziarko santutegian bataiatuko zutela eta eguneko santuaren izena emango ziola, zite-

keenik itsusiena izanik ere. Jaio zen haurra bere garaian eta, hara, alaba zoragarria. Biho-tza pozez jauzika, izena jarri behar zitzaiola eta, Jainkoari egin promesaz gogoratu zen. Eguneko santuarena alaba jaioberria bezain polita suertatuko zen esperantzan, egunkariaren orria begiratzera joan zen irrikaz. Orria irakurtzean, ordea, S. Robustiano, irakurri zuen. Ez zitzaion batere gustatu; bai-

na..., «odolkiak ordainetan», promesa bete egin zuen. Han agertu zen Itziarko Santutegian, Debako Bikarioaren baimen idatzia eskuan, eta, Ro-bus-ti-a-na!, erantzun zion bataioan apaizari, neskabila polit hari ze izen jarri nahi zion galde egin zionean. Lekukoek alborantz ezkutatu zuten aurpegia eta apaizak nahiko lan izan zuen, barrez lehertu gabe, bataio-hitzak itxura onean esaten.



Mutriku alderako zubia, 1865 inguruan eraikia

Haurtzaroan gozo

Mujikatarren lehen alaba gurasoen kuttuna zela jakiteko, esan dugunaz gainera, ez da dokumentazio handiaren beharrik. Etxeko bitxi maite eta jostailu zen Tene hainbeste nebaren artean. Hala ere, adinez hurbilenekoekin ez omen zuen, handienekin bezain, harreman ezta izaten; badakizu, inbidiatxoak eta... «Eztia ez, baina, bai maiztia», esan ohi zuen, jolas-lagunik leialenak, egunerokoenak eta, zarkartxoagoak izan arren, baliotsuenak senide gazteak izan zitzaizkiola aitortzean. Udaletxeko arkupeek eta aurreko plaza berriak

eman liezagukete testigantza ederrik Mujikareneko umeteriaren jolas alaiei buruz. Egia esan, dagoen tokian egonda, ihesbide aukerakoa zuketen.

Behin lau zapabost urte zituenetik aurrera etxeko denda izan zitzaion jolastoki kuttunena. Gurasoekin dendari izatea zuen gutizi, aita salgaiak biltzen zebilen bitartean, amaren ezinbesteko laguntzaile bihurtzeraino. Jolas zitzaion dendaritz eta aldi berean hezigarri. Jolas eta solas, geroan ogibide izango zuen ofizioaz jabetzen joan zen, oharkabean.



Deba XIX. mendearen erdi aldera

Hezkuntza eta eskolatzea

Bi kontzeptu hauek sinonimotzat hartzeko joera ohi dugu askotan; baina, batak bestearekin zerikusirik baduen arren, ez dira hedaturaz berdin. Egokitu zaion bizi eremuan ahalik eta erosoan aurrera egiteko trebetasuna lortzen doa Tene etxe nahiz hurkoekiko harreman arrunt bezain gorabeheratsuan; inguruko kultur giroan oharkabean txertatzen, dendari, debar, euskaldun.... Hezten ari da.

Gizarteak, ordea, bizibidea erraztu nahian, erabilgarri berriak sortzen ditu. Hala sortu zuten eskola.

Itsas merkataritzak, aurrena, eta udatiarrekiko elkar bizitzeak, gero, jende eskolatu dotorearekin bere burua alderatzera ekarri zuten debarra. Lotsarazi ere egiten zuen herritar xume langile iaioa zenbait dirudun eskolatu gaizki hezik. Beraz, eskola eskea geroz eta nabarmenagoa zen herri handi nahiz txikietan.

Tene jaio baino hilabete batzuk lehenago, 1887an, inauguratu zuten Deban eskola publiko berria. Bi gela zituen; bata neskentzat, irakasle maistra zuela, eta, mutilentzat bestea, maisuaren gidaritzapean. Ikasleen helburu nagusia erdaraz (gaztelaniaz) hizketan, idazten eta irakurtzen ikastea zen; matemati-



Itziar aldeko nekazaritza, xx. mende hasieran

ka, zenbaki ariketa arruntenak menderatzea, zetorren hurrengo, eta, neskei, bereziki, etxeko eginbeharrei zegozkien eskulanak irakasten zizkieten eta emakume zerbitzari maratz izateko aholkuak ematen.

Sei bat urte zitzakeen Tenek, senide zaharra-
goek eskolara bidea erakutsi ziotenean, etxetik 50 metrora kale berean. Ez dirudi denbora-pasa ibili zenik; geroan erakutsi zigunez, letrak irakurtzen eta idazten poliki ikasia atera baitzen eta erdarazko gramatika ondo ikasia zuela, hamalau urterekin dendako ardurari erabat atxiki zitzaionean. Euskarazkorik ordea... Euskara debekatua eta zigtuetua zen.

Denda unibertsitate

Badakigu emakumeak ez duela, inon ez inoiz, aukera handirik izan gizarte erabaki guneetarako bidean aurrera egin ahal izateko, joan den mendearen erdi aldetik hona oztopoak gainditzen eta gainak hartzen ausart ari badira ere. Mende hasieran oso urri ziren unibertsitate bideari heltzeko adorea zutenak, eta gehienetan etxeko eta inguruko oniritzirik jaso gabe, gizasemeen itxura eta zeregina hautatu zituztelakoan.

Hala ere, bazen emakumezkoei zilegitzat ematen zitzaien lanbide bat: irakaskuntza emakumearen zeregin egokitzat etsia izan da



Udatiarrak gurdian pasiatzen, xix. mende bukaeran

beti, ama izatearen jarraipen. Aurrerakuntzak haurrari zekarkion hezi behar berezia emateko, gizasemea bezain egokia zela emakumea uste zuen jendeak. Emakume multzo polita ageri zaigu irakasle eskoletan. Hauen artean badugu idazle ezagunik: Madalen Jaurregiberri, Julene Azpeitia *Arritokieta*, Sorne Unzueta, Maria Dolores Agirre, E. Zipitria, ...

Tene, ordea, hamabi senideetan bederatzigarrena zen eta alabetan zaharrena. Amaren bi eskuak murriztegi ziren hainbeste aho goseri jatekoa prestatu eta hainbeste larru-gorri txukun estali ahal izateko, askotan dendaren ardura ere bere gain baitzuen. Bai, Tene etxeari lotu behar izan zitzaion nerabezaroan, unibertsitatean aurrera egiteko gaitasun bikaina zuen arren. Ez, haatik, etxe barruko emakume zereginari soilik, dendari ere bai baitzen; geroz eta dendariago gainera, aita urteetan aurrera eta osasunez erkintzen zihoakion neurrian. Emakume lana, ama lana, sendiaren lehen premiei datxikie, orduko kristau euskaldunen pentsamoldean; Dendariarena, aldiz, kanpora begirakoa da, gizasemeentzat erosoagoa.

Hauek honela, ofizioa ikasten hasi zen, mutikoen gisan. Salerosketaren trikimailuez gainera, ezkogintza ere ikasi zuen kosta ahala kosta. Beharko; izan ere, herriko ezko-ola Muxikarenean zutenez, han egiten zen Deban eta auzoetan behar izaten zen argizari eta kandela kopuru guztia. Ez pentsa, garai hartan garrantzi handiko industria zen ezko-

gintza. Ikasi zuen ofizioa eta bizi-iraupenerako ogibidea lortu ere bai.

Dendari izanak ez zuen, ordea, Euskal Herri osoan ezagun egin. Tene euskal idazle ezagutu dugu, emakume abertzaleen lider, hizlari trebe... Horrek ezkogintzan ikasten ez den prestakuntza intelektuala adierazten digu.

Eskolak ez zion bere hizkuntzan alfabetatzeko aukerarik eskaini. Nork irakatsi ote zion euskal gramatika? Denda izan zitzaiola unibertsitate eta Itziar aldeko baserritarrak irakasle hizkuntzari eta herri kulturari zegozkionetan, aitortu omen zien S. Onaindia eta A. Zubikarai adiskide gazteagoei. Nabaria da, noski, nekazal kutsu jatorra haren idazkietan, olerkietan bereziki; baina, ez gutxiago euskal literatura zaharraren eta garaikidearen eragina. Gainera, badakigu, berak esanda, irakurtzeari erabat emana zela, eta, dendak libre uzten zizkion tarteak oro hartarako erabiltzen zituela.

Zen bezain erlijio zalea izaki, ongi aztertuak zitzakeen gure idazle zaharrak: Axular, Larra-mendi (hiztegia), Kardaberaz, Mendiburu, As-teasuko Agirre... eta, hain hurbileko zaizkion, Mogeldarrak eta Añibarro. Eta, zer esanik ez, bere garaikide, baina zahartxoago, Arrese ta Beitia olerkaria eta, ia auzo zituen, Txomin Agirre eta Azkue (hiztegia). Bestalde, Tene-ren gurasoek bazuten herrikide eta apaiz jaun zahar bat «adiskide on eta aundi»: Don Lorenzo Boneta. Euskaltzale izugarria eta,

gainera jakintsua ei zen. Zahartzeak ikusmena eskastu ziola eta, egunero etortzen zitzaien neska gazte argiari dendara berak nahi eta ezin zuena irakur ziezaion. «Ni pozik. —esaten digu Tenek— Esan beharrik ez, biziro zaletu nintzala euskeraren alde zanguzira. Baita gai orretan zerbait askoren jakitun egin ere». Bilbo aldeko literatur mun-

duarekiko harremana ere dendari zor diola, hein handi batean, esango nuke. Benetan zirrargarria zitzaiokeen bilbotar ilustratuari, erosketak egitera joan eta, herri txiki bateko dendari neska gaztea liburu lodia eskuetan ikustea. Solaskide, solas-gai, bezeroaren arabera: Aberria, literatura, erlijioa (nola ez?), politika, emakumearen zeregina...



Debako plaza berria, xx. mende hasieran

Aitarik gabe, nekea bikoitz

Arrean gaztetxo zela heldu zitzaizkion aitaren ezina, lehenbizi, eta aitarik eza, geroxeago; hemeretzi urteko zela eraman baitzion, erruki gabe, Heriok.

Denda handiaren ardura eta nekea larregi gertatu zitzaizkion nerabe ausartaren soin artean behar bezala irmotu gabeari. Ez zuen, ez, beldurrik azukre, patata, baba, zahi ..., edozein zakukada astuni edo ardo zahagi beltzi eskuetako hatz luzeak itsasteko. Beldurrik eza arrisku bilaka dakioke, ordea, bati, nork bere indarraren neurria ezagutzen edo aintzat hartzen ez badu. Horixe gertatu zitzaion, hain zuzen, Tene gajoari: ezina



Mujikaeneko denda

neurritz gaineko ekinez menderatu nahi izan zuen eta, osasunak krak egin zion.

Hogei urte zituela, 1909ko neguan bizkarreko mina hasi zitzaion, ibiltzea bera ere mingarri bihurtzen zitzaiola. Nerbioetakoa zuela esaten omen zioten; gaitz psiko-somatikoa esan bide zion, medikutik baino kaikutik gehiago zukeen, sendagileren batek, hots handiko hitz arrotzen gerizpean bere gaitasunik eza ostenduz.

Hamar urtez jasan behar izan zuen oinazea, ia etxetik irteteko ere gauzaez, bizkarrezurra urtean baino urtean makurragotzen zihokiola.



Izan zuen baserritarren eraginik

Dendako zereginari erabat uko egin gabe, erostunen behar arinenak asetzen jarraitu zuen; baina, bizitzako erabakigune garrantzitsu izan zen gaixoaldi hura Tenerentzat. Fisi-koaz gainera beste indarrik ere bazuela esan zion bere buruari. Soina eri zuen, baina, go-goa argi. Kemen ezkutu horrekin batera, bere bizitzari norabide berria emango zion zaletasunik ere bazuen: ikastea zuen maite eta irakurtzea laket. Luzaro baino lehen ohartu zen, ordea, euskaldunak aukera urria

zuela bere hizkuntzan irakurtzeko; erraz kontatzekoak baitziren liburutegietan aurki zitzakeenak eta urtean argitaratzen zirenak, berriz, bakan.


Arnasbide bikaina eman zion Teneri 1912an Zornotzan sortu zuten *Jaungoiko-Zale* euskarazko aldizkariak, eta, zer esanik ez, hurrengo urtean EAJk, bere ideologia eta helburuen berri Euskal Herriari eman nahian, argitaratu zuen *Euzkadi* egunkari elebidunak.

Engrazio Arantzadi *Kizkitza* izan zuen lehen-biziko zuzendaria *Euzkadik* eta Ebaristo Bustintza *Kirikiño*, euskal idazle eta kazetari ospetsua, euskal atalaren arduradun. Egunerokotasuna ekarri zion honek, benetan, euskal irakurleari. Hiru urte geroago *Euzko Deia* jaio zen. Honek guztiak eraginik izan zuen debarraren jardunbidean.

Irakurtzea ikasia jakinduri bihurtu baitzitzaion, zekientxo aldarrikatu beharra nabaritu zuen, eta idazteari ekin zion. Garaitu horretan, besterik baino solaskide atsegina-go bat ere hurbildu ohi zitzaion Mujikareneko dendarisa liburuzaleari. Auzoko Joxe Markiegi zen; Comillasen apaiz ikasketak egiten ari zena; abertzale sendi ezaguneko seme eta euskaltzale fina. Ez da dudarik adiskide jakin-gose hauen arteko jardun erosoak izan zuela eraginik; handik urte gutxira euskarazko prentsan lankide emankor ageri baitzaizkigu biak.

Zena zela, bizipenik sentituenak, goibel nahiz bozkariozkoak, paperean olerkiz islatzen hasi zen. Tarteka, ipuin eta bestelako kontakizunei ere eman zien letra.

Ordurako *Gipuzkera Osatuaren* peskizan zebilen Azkue, liburua geroxeago argitaratu zuen arren. Bide horretatik jotzen du Tenek ere, bizkaieraren berariazko kutsua orri guztietan nabari zaiola. Garbizalea dugu, garaiko giroari zegokionez edo agian gehixea-go. Mailegurik antzinakoena, euskaldunduena



Argizaria ere egiten zuten

eta erabiliena baino nahiago ditu neologismo edo arkaismo ulergaitzenak. Hala ere, edonorentzat ulergarri dira bere idatziak, hitz lauz nahiz neurtuz ari, herri xumearen hizkera kulturaz asearen bahean iragaziak baititu, esamolde, atsotitz, anekdota eta metafora aberatsez garden eraikitzeraino. Honela:

Bizibideko aldatz luzean
 Arki du ainbat elorri
 Gazte sasoyan, udara-aldian,
 Itxaropenez orlegi;
 Ai! Zartzaroan, negu beltzean
 Osto gabe, soil, mingarri;
 Eta gaxoak ez du bidean
 Arantza baizik euskarri!

Gaixoaldian olerki-min eta ipuinak atsegin

Ondoezak, sentibera bihurtzen gaitu maiz, gizakoi; eta, malenkoniaren malakoak xukatuz, bihotz taupada berriei irtenbidea aurkitzen hasten gara.

Tenek, gaixoaaldi luze hartan, sentimenduz gainezka baitzuen bihotza, ataka ireki eta, olerki jarioari eman zion bide.


Kirikiñok jakin zuen nonbaitetik Debako dendari olerkariaren berri eta, *Euzkadi* egunkarian, euskarazko atalean, argitaratzen has-teko eskatu zion 1916an. Garai berean etorri zitzaizkion *Euzko Deiatik* ere arrenka. Handik aurrera, bi kazeta hauek eta, geroxeago, *Jainko-Zalek* eten aldirik gabeko lankide izan zuten Tene.

Olerki multzo polita du han-hemenka argitaratua, 1923an Zornotzako *Jaungoiko-Zalek* atera zion liburukoez gainera. Jautarkolekin batera, erromantizismo osteko olerki lirikoaren barrutian aitzindari izan zitzaion *Lizardi* handiari. Teneren sei olerki aukeratu zituen S. Onaindiak bere *Mila Euskal Olerki Eder* lanean

sartzeko: *Ama, Muxua, Ikazkin Lilluratua, Gogo-Negarra, Arnoko Gurutzia* eta *Neskuts Minduari*. Berdin eman ziezaiokeen ohore hori *Galdea* eta *erantzuna* izen prosaikoaren itzalean, apal, lirismo liluragarria eskaintzen digun kantuari; baita beste askori ere. Watson Kirkconnell-ek *Udazken-ala* argitaratu zion, ingelesez, bere *European Elegies* bilduman. Nik guztietan laburrenari eman diot tokia, *Nere leyua* izenekoari, lan onen neurriari dagokiona izateaz gainera, euskal olerki hoberenen antologian agertzeko bezain duina delakoan:

Nere gelako leytok
Dager ortze zati bat,
Berari zor dizkat nere
Oldozkun gozoenak.
Naiz euzkiz jantzita egon,
Naiz odehyez izukor,

Naiz ilargi geltsuz edo
Naiz izarrez dizdikor,
Mintzo gozoz poztutzen du
Nere gogo gaxua....
Eta bere mintzo eske
Zabaltzen det leyua!



Nere leyua olerkiko marrazkia

Eta..., osasuna, berriz!

Hamar urte zeramatzan etxetik ia irten ezinik, bere gaitzak sendabiderik ez zuelakoan, etsita. Hogeita hamarrek beteak zituela jakin zuen, ba omen zela Eibarren mediku frantziar bat, gaixotasunak antzematen biziro trebea. Zer galdurik ez zuela eta, han joan zen bere bizkar makurtua bat gehiagori erakustera. «Bizkarrezurrean etena daukazu, baina opera daiteke», —esan zion.

Operatu zuten eta, horra!, sendatu!!! Ibilezina egonezin bilakatu zitzaion ebakuntza ostean, erabat oneratzea lortu zuen bezain laster.

Emakume egina zen ordurako; buruz ondo txo jantzia eta hitz ederrez oparo hornitua. Deba aldeko etxe dorreen esparruetan gertatutzat, herriak belaunaldiz belaunaldi kontatu dizkigun kondairetan protagonista nabarmen ageri diren emakume ospetsuen eitea gogorarazten digu. Joan B. Arakistainek, 1866an argitara eman zuen, *Tradiciones Vasco-Cántabras* liburuan jaso zizkigun herri kontakizun haiek, ziren bezain gordin eta izugarri. Liburuzale izaki, gurasoengandik entzun eta ikasiak irakurriaz gozatzeko aukera ez zuen, noski, alferrik galdu Tene gazteak. Alos-torreko Usoaren zuzentasun iraunkorra, Buztinagako basozainaren emazte Teresa zintzoaren mendeku-beso ikaragarri eta misteriozko botereduna, Zubeltzu-torreko Madalen anderearen bihotz-beratasun hunkigarria eta *Hiru Uhinak* sorgin istorio tragikoa,



Teneren idazlanen bilduma

eredu eta eskarmentu zituela garaturiko izaera sendoa erakusten zuen ordurako.

Gizartean zer eginik bazutela uste zuten emakume ausartak plazan agertzea ekarri zuen Euskal kazetaren hedatzeak. Behingoz beren iritzia publikoan azaltzeko eskubidea aitortu zitzaien. Geroz eta gehiago ziren euren aburuak argitaratzen dituzten emakumeak, izengoitiz sinatuak bada ere: K. Elizegi, Mañariko, Utarsun, Arritokieta, P. Saragueta, ...

Honen eraginez edo, abertzale giroko emaztekiak elkartzen eta aberriaren askatasun bila ahalegintzeko betebeharra aldarrikatzen hasi ziren, aitzindari Tene Mujika zutela, gizonzkoen alboan —eta hauen zerbitzuan, noski—. Gogoan baitute nonbait, subkontzientean bederen, besterik baino gehiago, emakumearen emantzipazio hastapenak itoztea zuela helburu inkisizioak, gure sorginak martiri laiko egin zituenean.

Emakume abertzaleen lider

Ikarrekin ondo konpontzea ez da, itxura denez, inoiz izan abertzaleon ezaugarri eta, 1921ean ere, beste hainbat aldiz bezala, bitan zatitu zen alderdi abertzalea. Independentzia zaleak alde batera, Eli Gallastegi buru zutela, EAJ izena berreskuratuz, eta, autonomia zaleak bestera, Ramón de la Sotaren gidaritzapean, CNV izenarekin jarraituz.

Zatiketakoan. CNVan lerrokatu zen Tene, Kirikino bezala, nola ez!? Eta, *Euzkadin* idazten jarraituko du, noski. Baina, lirika albora utzirik, helbu-

ru didaktikoa du oraingo bere jardunak. Emakume abertzalearen prototipoa marrazten doa idazkiz idazki, Sabino Aranaren burubideak emakumeen zereginetan arloz arlo txertatuz. Gero, 1923an, *Jaungoikozalek*, liburu eginik argitaratzen dizkionean, emakume abertzalearen eskuliburu bilakatuko dira *Itziarri Idatziak*. Euskal Herriko emakumerik ezagunenatarikoa dugu Tene ordurako.



Emakume Atzarri Batza

Gallastegi ohartua zen emakume abertzaleen indar berriaz eta, zatiketa ostean, hartaz baliatzea otu zitzaion, noraezean galdu edo okertu ez zedin. Beraz, 1922an, *Emakume Abertzale Batza* sortu zuen, Irlandako emakume abertzaleen esperientzian oinarrituz eta haien aholkuak jaso ondoren, baina, gurera egokitzeko behar adinean leunduta. *Euzko Gaztedi*ren barne-atal gisara eta haren menpe antolatu zuen Gallastegik EAB, emakumeak bere zereginak —euskara, ikastolak, behartsuak, erlijioa...— etxetik kanpora ere bete zitzaion; horrela, gizasemeen lana erraztu eta osatuz. Arrakasta handiz hasi zen lanean eta joan zen hazten EAB, Bilbon hasieran, Karmele Errazti

gidari zela, Polixene Trabudua eta Haydeé Agirre bezalako ekintzaileen kemenari esker, eta gainerako tokietan gero, 1923an Primo de Riveraren Diktadurak eragotzi zuen arte.

Tenek, CNVkoa izaki, ez zuen EABn sarbiderik. Emakumeak beren buruaz arduratzea, berriz, ezinbestekotzat zeukan. Zer egin? Beste bat asmatu eta kito! *Abertzale Atzarri Batza* sortu zuen, bestearen berdin-berdina eta izenez ere antz-antzekoa. R. Sotaren harikoei ez bide zitzaion asko gustatu, ordea, Teneren sorkuntza eta ahalegina. Emakume bat bere gisara erakunde bat sortzen? Hala-kerik behar izanda ere, gizasemeen lana zen. Emakumea ez al zen, ba, Jainkoaren erabakiz, gizonaren zerbitzurako egina? Deban eta



1936ra arteko emakume idazleak.

Ondarroan izan ezik beste inon ez zuen talde-rik lortu ahal izan Alderdikoen gaitz-iritzia zela medio. Haserretu zen Tene *Euzkadin*: «...nere eunka erdi au arkitzen ezpadet, geyen bat giza-semen gatik da; gizasemeak gure laguntasun bearrik azaldu ezakin, emakume artean zalan-tza bildurra eta abekin epelkeria ereiten dute-lako. Eta ekinean gabiltzanok parregarri utzi sarri askotan». Harrigarria? Ez horrenbeste. Handik ia mende bete joan denean, barka es-katu digu Maialen Lujanbio bertsolariak hona-ko hau esateko: «...bai, emakumeak behar ditu-



Gogo-Oñazeak-ek lehen saria irabazi zuen 1934an

gu gero eta zidorrigo den herri-bide honetan. Emakumeak, motor eta sorburu, bizitzen asmatu nahi honen muinean. Jarrera emeak behar ditugu. Arazoa da, diodan hau ere, askoz xarmangarriago litzatekeela, indartsuago, sinengarriago, garrantzitsuago, gizona batek esan izan balu».

Haserretu zen Tene, bai; baina, ez zen ez kikildu. Zailduegia zegoen jadanik gizonzkoen jokabide lotsagarri baten aurrean amore emateko. «Konturatuko zīnan —esaten dio Itziarri XIX. idazkian— ez degula emakumeok bildurrik izan behar Jel-aldez alegintzen ekiteko, ba orretarako ez degu ezer bereziki eta geure bearrikun ingurutik ateratzen gaitun ezer egin bearrik. Eta ala egin bear ba'gendu ere, zer?» Bai ahalegindu ere. Mercedes Ugaldek bere *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936* liburuan hirurogei orrialdetan ematen dio tokia Teneren jardunari; beste inori baino askoz gehiago, Sabino Aranari izan ezik.

Beltzez jantzitako emakume lirain aurpegi zuridun ikusi zuten garaikideek, artean giza-semei soilik eta ez besteri zegokien foro publikoetan, hitza trebe eta ausarki hartzen; izen handiko jaunen alboan, lotsarik gabe, duin, Aberriaren gorazarreak eta arriskuak aldarrikatzen, hura bizkortu eta sendotzen ahalegintzera aberkideak erakarri beharrez. Hala ikusi zuen Oxobik Oiartzungo plazan, 1923ko S. Estebanetan, *Gure Herria* aldizkarian aitortu zigunez.

Antzerki idazle

Urteak ez dira alferrik joaten eta urteekin Primo de Riveraren Diktadura ere erori zen. 1931n, II. Errepublika sortzean CNVk eta EAJk bat egin zuten eta, beraz, emakume abertzaleek ez zuten elkarrekin joateko oportunitateirik. Kirikiño 1929an hil baitzen, Lauaxeta handiak bete zuten *Euzkadin* haren tokia. Emakume idazleei hark eginiko deiari Tenek ez zion, noski, entzungor egin. Hala ere, bakarra batzuk bakarrik bidali zizkion; bai baitzuen beste zereginik, Deban eta inguruetan EAB indarberritu eta bideratzen. Horiek horrela, 1935ean Gipuzkoako EABren lehendakari hautatu zuten.

Herriz herri ibili beharra izan zuten, liderrari dagokionez, eta, tokian tokiko arazo eta

ahalbideen berri hurbiletik ezagutzeko abagune bikaina izan zuten. Hala, antzerkia kultur gai egokia zela euskara erakargarri egiteko ohartu zen, herri handi nahiz txikietan lortzen ari zen arrakasta ikustean. Antzerkilariek zer antzestu handirik ez zutela eskuartearen eta..., idazteari ekin zion. Bidegile. Honetarako jaioa izan nonbait. Katarine Eleizegi eta biak garaiko antzerki idazle hobereenen pare ageri zaizkigu, ala gainetik!? Eta gogoan har sasoiko zirela orduan, T. Altzagaren babesean, J. Karraskedo, A. M. Labaien, A. Barriola, etab.

Hiru antzerki idatzi zituen urte haietan: *Gabon*, *Gogo-Oñazeak* eta *Juan Jose*. Lehen saria irabazi zuten hirurek. Lehenengo biek *II. Antzerki Sariketan* jaso zuten saria, 1934an, eta *Antzerti* aldizkariak argitaratu zizkion epai-



Tolosako Lizardi taldeak eman zuen *Gogo-oñazeak* Kurtsalean




Goaz taldea

mahaiaren iritzi eta guzti: *Gabon*: «Umientzako antzerkitxoa, —dio egileak— Tajuzkoa, bai gaiez, bai joskeraz, bai iraute neurritz eta bai ikasbidez. Euskera polit erreza». *Gogo-Oñazeak*: «Lan txukun eta ederra. Gertaera egokia eta esakera-egikerak areago. ... Eus-

kel-antzerki barrutian aurrera dionetakoa da antzerki txalogarri auxe».

Tokiak eta uneak neurtzerakoan ageri duenez, antzerkiaren nondik norakoak ongi ikasiak ditu Tenek eta, zer esanik ez, egoera fisiko nahiz psikologikoei buruzko akotazioei dagozkien burubideak. Hortik *Gogo-Oñazeak*-ek, 1934an, Tolosako *Lizardi* Antzer-



Euskara irakasteko liburua

Debako Goaz taldeak antzestu zuen
Zubeltzu antzokian Debako Goaz taldeak
antzestu zuen Zubeltzu antzokian



ki Taldeak aterata, Donostiako *Kurtsalean* izan zuen arrakasta eta Debako *Goaz* Taldeak emanik 1988an, han eta hemen jaso zituen txalo zaparradak.

Juan Jose: «Ni, 1936ko jorrailean, Oñatin egin zan Asamblea Mariana Diocesana'ra aurkeztu nintzan, Certamen Literario sailera. ... Nik bidali nuan iru ataldun antzerki bat, *Juan Jose*, saritua izan zan. ... Diruaz gainera Diploma eman zidaten On Mateo Mujika Gotzai jaunak izenpetua; berak eman ere. Andik laister, illabetera, gure guda. Guk bezela gure Gotzai jaunak emendik alde egin bearra izan zuan Prantziara. Gazteizen beste Gotzai berri bat eta beste kontu batzuk... An galdu zan nere antzerkia eta beste askoren lanak.» —idatzion S. Onaindiari.

Atzerrian etxeko, etxean arrotz

Bai, Gotzainak bezala, Frantziara alde egin behar izan zuen. Sozialisten hurrez beterik zihoan itsasontzi batean hartu zuten. Itsas handian sartu zirenean, ordea, Franroren gudaroste matxinatuaren *Cervera* guda-ontziak geldiarazi egin zituen, bahitzeko edo hondortzeko asmotan. Eskerrak korazatu ingeles handi batek, tartean sartu eta, kanoiak erakutsi zizkion. *Cerverak* uzkur alde egin behar izan omen zuen. Handik aurrera, korazatuak lagundu zituen La Rochelle-ko kaia ospetsuraino.

Handik Ipar Euskal Herrira etorri zen eta hor eman zioten aterpe. Ziburun bizi izan zen, bere anaia Joserekin batera, gerra bukatu zen arte.



Mujika familia (1958): ezkerretik zutik Tene, Felisa eta Jose. Eserita: Enkarna, Zelestina (Joseren izeko) eta Jose Antonio

Debara itzuli zenean, lagunena poza baino arerioen gorrotoa indartsuago aurkitu zuen Tenek. On eginaren sari, zigorra eman zioten: gaizki-ikusitza herritik kanpora bota. Nafarroako herrixka batean izan zuen, beste denboraldi batez, deserriko ostatu.

Etxeko eta lagunek, azkenean, etxeratu ahal izatea lortu ziotenean, arrotz eta preso sentitu zen, bere adiskide Markiegitarrak Jose apai-za eta Polentzi alkatea beste asko bezala fusilatuak, eta Felix auskalo beste zenbat bezala desterruan, Joxe Mari Irusta, nazien kontzentrazio zelaian desagertua, ..., gogoan zituela.

Berpizkundearen zantzuak

Hirurogeiko hamarkadan dendari aurkituko dugu, berriro ere, Tene. Otarrak eskuan erosketak egitera zetozenen artean, ordea, beste jende mota bat ere sartzen zen Mujikarenean, otarrik gabe sartu eta esku hutsik irteten zena, gehienetan gaztea. Emakume abertzale, borrokari, esperientziak hornituari aholku eske datoz. Ondorioz, Gazte Elkartea, Ikastola eta kultur talde euskaltzaleak zihozten sortzen poliki-poliki. Berriro idazten hasi zen; eta, 1960an, Txomin Agirrerren mendeurrenako literatur lehiaketan lehen saria irabazi zuen, nekazari gaian.



Tene haur txistulariz inguratuta

Ikastola dugu, agian, Tenez gehien baliatzen dena. Irakasleek, eskola-materialik eza ia erabatekoa zutenez, harengana jotzen zuten itzulpen bila, eta, hura pozik. Ikastolako haurren guraso erdaldunentzat ere argitaratu zuen, liburuxka bat *Euzkel Idaztiñoak* zeritzana, pluralean gehiagoren asmotan; baina... 1968a zen, Euskara batuaren urtea eta ez zegoen ikasketa berriari heltzeko adinean. Gainera, euskaltzain gazte asko ikasiei, akademia hizkera handikiaren ohoretan, herri hizkera bizi emankorra bazter uzteko joera ikusten zien, euskara bera galtzeko arriskuan jarritz. Ez zen bakarra; M. Lekuona, Akesolo, Zubikarai, S. Onaindia, Etxaniz, S. Muniategi,... eta nortasun handiko beste idazle ospetsu askorekin batera babestu zen, *Euskera Zaintzan*. Idazten jarraitu zuen. Herriko aldizkarietan, festa egitarauetan eta, batez ere, *Euskera Zaintzaren* aldizkarian goza dezakegu bere ipuin, herri ohitura eta olerki sentituen xarma.

Ohorezko Euskaltzain

Euskaltzaindiak, Emakumearen Nazioarteko Urtea zela eta, Tene, Julene Azpeitia eta Madalena Jauregiberrirekin batera, Ohorezko Euskaltzain egitea erabaki zuen, 1975ean. Baita egin ere, Donostiako Foru Aldundian eginiko ekitaldi hunkigarrian. Euskara Batuari muzin egitean adierazitako jarrera kritikoa benetan aintzat hartzen ziola erakusteko era egokia zen. Gabriel Arestiri otu omen zitzaion ideia; Xabier Aranburu *Satarka* olerkari zenaren ilobak esanda dakigu. Aresti, ordea, ez zen, tamalez, egun hartan Donostiako Jauregi Probintzian agertu, ekainaren 5ean hil baitzen. Euskal zuhaitzaren munduko sustriai antipodek elkar besarkatu zuten eternitatera bidean, Euskara Batua enbor jatorrean txertatuz. Geroztik, ahalegin etsi gabean ari zaigu Euskaltzaindia herri euskararen eremu guztiak maiteki ureztatu eta babesten, bikainez bikaina mamitu dezagun.



Robustiana Mujika Tene



Madalena Jauregiberry



Julene Azpeitia Arritokieta



Gabriel Aresti

Gabriel Arestiren proposamenez egin ziren hiru emakume euskaltzaleok Ohorezko Euskaltzain



Tene Mujika sariko bilduma

Urteen zama nabari zaio Teneri ere; bizitzaren udazkeneko fruitu heldua dugu, lurrera nahian adaxkatik dilindan, landare berrien hazi bilakatzeko gurariz: «...nere ezina aundia da, —esaten dio Muniategi'tar Sabini, 1979ko eskutitzean—, nere begi lausoek oso gutxi ikusten dute ta, ezin nai bestean ezer idatzi. ..., osalariak atsedean aundira beartuta naukate. Bestetik..., larogeita hamaika urte soiñean!».

Udaberriz, lur onean jaulki zen. 1981eko irailaren 16an heldu zitzaigun eliz ezkilen negarra, Teneren hil-berri samina aldarrikatzen.



Gabon, Tolosan 1935ean argitaraturako lana. Haurrentzat idatziriko antzerki-obra da

Eta, gure artean dabil bidegile

Debako Udalak 1983ko abuztuan Tene Literatur Lehiaketa sortzea erabaki zuen, Kultur Elkartearen laguntzarekin. Hogei urte darmatza Tene Lehiaketak, hutsik egin gabe; eta, gaur egungo euskal idazle ospetsuenen arteko izen ezagunak ageri zaizkigu irabazleen zerrendan; Anes Arrinda, Joan Martin Elexpuru, Pello Esnal, Xabier Etxaniz Rojo, Luis Fernandez, Joxerra Gartzia, Antton Luku, Laída Martínez, Xabier Mendiguren Elizegi, Jesus Mari Olaizola *Txiliku*, Xabier Olarra,

Mikel Taberna, Maite Urkia, Juan Luis Zabala, Patxi Zubizarreta, ..., ditut orain gogoan, beste guztiak gutxietsi gabe, hogeai ipuin liburu bikainetan barreiatuak daudenetatik.

Jaiotzaren mendeurrenean, 1988ko maiatzean, omenaldi maitekorra eskaini zioten bere jarraitzaileek, adiskideek eta Udalak.

Goaz Antzerki Taldeak, berriz, urteko Antzerki Astea eskaini zion, bere lanen lagin txukuna, txalo artean, eszenaratuz.

Tenek ebaki zigun bidea zabalik mantenduko du, bai, gure herriak.



Ehorzketa egunean adiskideen agurra

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Mujika familiari
- Bidegileak bildumari
- Maite Andonegiri
- J. L. Irustari
- Anes Arrindari (Bizion artetik joan berria)
- Mikel Egañari (Debako bikarixua)
- Debako Udal Liburutegiari
- Debako Kultur Elkarteari
- Goaz Antzerki Taldeari
- Kaioa Diseinu Grafikoari

Bibliografia

- Tene. *Idazkiak eta Olerkiak*. Jaungoiko-Zale, Zornotza, 1923.
- Mujika'tar Tene. *Gogo-Oñazeak*. Antzerti, Tolosa, 1934.
- Ugalde Solano, Mercedes. *Mujeres y nacionalismo vasco: génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*. UPV-EHU, 1993.
- Azurmendi, Joxe. *Arana Goirenen pentsamentu politikoa*, San Sebastián, 1979.
- Onaindia, Santi. *Milla Euskal Olerki Eder*, Zornotza, 1954.
- *Oleri bilduma*. Zornotza, 1959.
- Urkizu, Patri. *Euskal antzerkia*. Eusko Jaurlaritzza-Kultura Saila, 1984.
- Labaien, Antonio Maria. *Teatro euskaro*. Donostia, 1964.
- *Deba, Nora Goaz?* Hirigintza Komisioa. Debako Udala, 1978.
- Aldabaldetrecu, Roque. *Debako Udalerría*. Debako Udala-Kutxa Fundazioa, 1996.
- *Deba* aldizkaria. Kultur Elkartea. Deba.
- *Euskerazaintza* aldizkaria. Bilbo-Donostia, 1987.
- *Diccionario Enciclopédico Vasco Auñamendi*. Bernardo Estornés. Ed. Auñamendi, 1969.
- *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*. Klaudio Harluxet Fundazioa. Donostia, 1995.

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2004ko azaroa
Ale-kopurua:	2.500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Joseba Olalde (g.b.)
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2181-X (Lan osoarena) 84-457-2184-4
L.G.:	BI-2.959-04